musikene

**10/2008 Ebazpena, ekainaren 26koa, Musikeneko ikasketaburuarena, "kolaborazio instrumentala" eguneratzen duena, jarduera akademikoaren kontzeptuari eta antolaketa-prozedurari dagokienez.**

**Resolución 10/2008, de 26 de junio, del Jefe de Estudios de Musikene, por la que se actualiza la "colaboración instrumental" en su concepto de actividad académica y en su procedimiento de organización.**

Urriaren 26ko 25/2005 Ebazpenaren bitartez, "kolaborazio instrumentala" bildu zen Musikeneren hezkuntza-eskaintzara. Ebazpen horretan nabarmentzen zen jarduera hori garrantzi handikoa zela ikasleak trebatzeko, musika azkar eta eraginkortasunez irakurtzeko trebetasunak jaso zitzaten. Trebetasun horiek estrategikoak dira denboraldi laburrean beste musikari batzuekin batera lan egoki bat egitea lortu nahi bada. Bestetik, Ebazpenean honako hau ere azpimarratzen zen: kolaborazio profesionala jarduera-egitura irekia zen, eta, ondorioz, ezinezkoa zen irakasgai konbentzionalaren eredura egokitu, profil aurreprofesionala zuelako, ikastaroan ikasleak unean uneko musika-aginduei erantzun behar ziela aintzat hartuta. Horrenbestez, jarduera horrek ezin hobeto ordezka zezakeen aukera librearen berezko zeharkakotasuna.

La "colaboración instrumental" fue introducida en la oferta educativa de Musikene mediante la Resolución 25/2005, de 26 de octubre. En ella se destacaba la relevancia de esta actividad en el adiestramiento del alumno para la adquisición de destrezas en la lectura musical rápida y eficaz, las cuales resultan estratégicas si se desea lograr un trabajo conjunto satisfactorio con otros músicos en un breve periodo de tiempo. Por otra parte, también se remarcaba que su estructura de actividad abierta y, por tanto, no ajustable al modelo de asignatura convencional, con un perfil que podría definirse como pre-profesional, en cuanto que el alumno va atendiendo diversos encargos musicales puntuales a lo largo del curso, la hacía idónea representante de la transversalidad propia de la libre elección.

Zorionez, "kolaborazio instrumentalak", abian jarri zenez geroztik, oso garapen arrakastatsua izan du, eta, horri esker, jarduerarako hasiera batean planteaturiko esparrua gainditu du. Hala, zenbait irakasgaitan —hala nola Jazza edo Ganbera Musika— zeharkako jarduera baino gehiago da une honetan. Horren ildotik, dagokion espezialitatearen berezko helburuekin zerikusi handia duen prestakuntza-eginkizuna bete du batzuetan. Hortaz, horrelakoetan hautazkotasunaren barnean har daitekeela dirudi, eta, horri jarraiki, "kolaborazio instrumentala"ren definizioa zabaldu behar da, hasiera bateko aukera libreko jarduera-kontzeptutik abiatuta. Urriaren 20ko 13/2006 Ebazpenak kontuan

Afortunadamente, la puesta en práctica de la "colaboración instrumental" ha tenido un desarrollo tan exitoso que ha sobrepasado el marco inicialmente planteado para la actividad. Así, en asignaturas de Jazz o en Música de Cámara la "colaboración instrumental" se ha convertido en más que una actividad de carácter transversal. Así, en ocasiones, ha asumido una función formativa estrechamente vinculada con los objetivos intrínsecos de la especialidad correspondiente. Por ello, en estos casos parece procedente su consideración dentro de la optatividad, con lo que la definición de "colaboración instrumental" requiere una ampliación desde su condición inicial de actividad de libre elección. La

hartu zuen, partzialki bada ere, "kolaborazio instrumentala"salbuespenez hautazkotasun-jarduera gisa hartu beharra; une honetan, ordea, planteamendu orokorragoa ezarri behar da.

Resolución 13/2006, de 20 de octubre, ya tuvo en cuenta, al menos parcialmente, la consideración excepcional de la "colaboración instrumental como actividad de optatividad, pero ahora se hace necesario establecer un planteamiento más general.

"Kolaborazio instrumentala"ren kontzeptua zabaldu ez ezik, antolaketa-prozesuaren alderdi jakin batzuk ere eguneratu behar dira. Hori bereziki kontuan hartzekoa da Karrera Amaierako Azterketetan kolaboratzaile instrumentalek gero eta esku-hartze handiagoa izan behar dutelako. Kolaborazio mota horretarako administrazio-prozedura espezifikoa ezarri behar da.

Paralelamente a la nueva consideración de la "colaboración instrumental" es también pertinente actualizar determinados aspectos de su procedimiento de organización. Lo anterior es particularmente relevante para la creciente intervención de colaboradores instrumentales en Exámenes de Fin de Carrera, caso de colaboración en la que se requiere un procedimiento administrativo específico.

Aldez aurretik deskribaturiko alderdiei jarraiki, Ebazpen honen bitartez honako hauek xedatu nahi ditut:

Atendiendo a los aspectos descritos anteriormente, mediante la presente Resolución dispongo lo siguiente:

*1. artikulua. "Kolaborazio instrumentalaren" definizioa.*
Ikasle batek ikasketa-planeko irakasgai instrumental jakin batean duen parte-hartzeari deritzo "kolaborazio instrumentala", betiere parte-hartze hori aldi baterako musika arloko esku-hartzea izanik, irakasgai horren programan ezarritako errepertorioa garatzeko behar den esku-hartzea izanik, hain zuzen ere.

*Artículo 1. Definición de "colaboración instrumental"*
La "colaboración instrumental" consiste en la participación de un alumno en una determinada asignatura del plan de estudios en forma de intervención musical temporal requerida para el desarrollo del repertorio establecido en su programa.

*2. artikulua. Kolaboratzaile instrumentalen premia izan ohi duten irakasgaien zerrenda orientagarria*
1. Ganbera Musika edo Talde Musika irakasgaietako edozein instrumentu-espezialitatetan, beharrezkoa izan daiteke partenaire bat unean-unean kolaborazioan jardutea, errepertorioan instrumentazio berezia duen partitura bati heltzeko aukera izatearren.
2. Era berean, Kantu espezializateko irakasgaietan —hala nola Eszena Lirikoa, Kantuari Aplikatutako Fonetika, Errepertorio Bokal eta Estilistikoa— edo Kontzertazioan beharrezkoa izan liteke ikasle

*Artículo 2. Relación orientativa de asignaturas que comúnmente requieren colaboradores instrumentales.*
1. Las asignaturas de Música de Cámara o de Conjunto, en cualquiera de las especialidades instrumentales, pueden requerir la colaboración puntual de un partenaire para poder abordar una partitura del repertorio que posea una instrumentación especial.
2. Asignaturas de la especialidad de Canto, como Escena Lírica, Fonética Aplicada al Canto, Repertorio Vocal y Estilístico o Concertación pueden necesitar la

piano-jotzaile edo kantari baten kolaborazioa, haren martxa akademikoari edo hark aukeraturiko errepertorioari jarraiki.

3. Jazz espezialitateak kolaboratzaile instrumentalak behar izaten ditu sarri irakasgai askotan, Instrumentu Nagusiaren irakasgaia barne. Gainera, jarduera horrek garrantzi handiko prestakuntza-zeregina betetzen du ikaslearentzat, taldeak sor daitezen sustatzen duelako, besteak beste.
4. Konposizioaren arloko irakasgaietan —hala nola Transkripzioa edo Praktika Harmoniko/Kontrapuntistikoa— litekeena da instrumentistarik behar izatea ikasleek idatzitako obrak jotzeko.

colaboración de un alumno pianista o cantante, según el caso, obedeciendo a su marcha académica y al repertorio escogido.

3. La especialidad de Jazz requiere muy habitualmente colaboradores instrumentales en muchas de sus asignaturas, incluida el propio Instrumento Principal. Además, esta actividad desempeña un papel formativo especialmente importante para el alumno, porque, entre otros beneficios, fomenta la creación de grupos.
4. Asignaturas de carácter compositivo, como la Transcripción o la Práctica Armónico-Contrapuntística pueden necesitar instrumentistas para interpretar las obras escritas por los alumnos.

*3. artikulua. Izena ematea.*

Matrikulazioaren prozesuan ikasleei aukera emango zaie kolaboratzaile instrumentalen zerrendan izena emateko.

*Artículo 3. Inscripción*

En el proceso de la matriculación habrá una opción mediante la cual el alumno puede inscribirse en la lista de colaboradores instrumentales.

*4. artikulua. Jarduerak proposatzea.*

Behin izena emandako ikasleen zerrenda ezarri ondoren, kolaboratzaileen premia duten irakasgaien ardura duten irakasleek ikasle horiei jarduerak proposatzeko aukera izango dute, zuzenean edo Musikeneren bitartez. Irakasgaien premien arabera, litekeena da ikasle batek, kolaboratzaileen zerrenda ofizialean egonik ere, jarduerak egiteko proposamenik ez jasotzea. Kasu horretan, Musikenek ez du kolaboraziorik bermatu beharrik izango.

*Artículo 4. Proposición de actividades*

Establecida la lista de alumnos inscritos, los profesores responsables de las asignaturas con necesidad de colaboradores podrán proponer actividades a estos alumnos, ya sea directamente o a través de Musikene. Según fueran las necesidades de las asignaturas, podría ocurrir que un alumno de la lista oficial de colaboradores no recibiera finalmente proposiciones de realización de actividades. En tal caso, Musikene no estaría obligado a garantizar una colaboración.

*5. artikulua. Kredituak amortizatzeko prozedura.*

1. Ikasturtea bukatu ondoren, txosten bat idazteko eskatuko zaie kolaboratzaileak izan dituzten irakasgaietako irakasleei. Kolaborazioaren iraupena eta emandako kalifikazioa adierazi beharko dituzte txosten horretan. Txosten

*Artículo 5. Procedimiento para la amortización de créditos.*

1. Finalizado el año académico, se solicitará a los profesores de las asignaturas que hayan tenido colaboradores que cumplimenten un informe indicando la duración temporal de la colaboración y la

horretan, halaber, idazkari akademikoak emandako kredituen kopurua eta mota (hautazkoak edo aukera librekoak) adieraziko du.

2. Behin txosten guztiak egin ondoren, idazkari akademikoak urteko ikasle kolaboratzaileen zerrenda aurkeztuko du jendaurrean, parte hartu duten irakasgaiaren, lortutako kalifikazioaren eta emandako kredituen kopuruaren eta motaren berri emanez. Aldi berean epe bat ezarriko du, ikasleek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egiteko edo argibideak eskatzeko aukera izan dezaten.
3. Erreklamazioak egiteko epea amaitu ondoren eta onarturiko aldaketak egin eta gero, emandako kredituak espedienteetan bilduko dira. Horretarako, “Kolaborazio instrumentala” izendapen orokorra baliatuko da, eta kolaborazioa gauzatu den gaia ere adieraziko da, parentesi artean.
4. Kolaborazio instrumentala egiteagatiko kredituak salbuetsita daude matrikula-eskubideak ordaintzetik.

calificación otorgada. En este mismo informe el Secretario Académico hará constar el número y tipo (optativos o de libre elección) de créditos concedidos.

2. Elaborados todos los informes, el Secretario Académico hará pública una lista de todos los alumnos colaboradores del año con indicación de la asignatura en la que han participado, calificación obtenida, número y tipo de créditos concedidos. En el mismo momento establecerá un plazo para que los alumnos puedan formular las reclamaciones o aclaraciones oportunas.
3. Finalizado el plazo de reclamaciones y efectuadas las modificaciones aceptadas se procederá a la inclusión en los expedientes de la concesión de créditos, la cual quedará reflejada con la denominación genérica de “Colaboración Instrumental” indicando entre paréntesis la materia en la que se ha realizado la colaboración.
4. Los créditos por colaboración instrumental están exentos de abonar los derechos de matrícula.

*6. artikulua. “Kolaborazio instrumentalaren” bitartez amortizatutako kreditu mota.*

1. Oro har, “kolaborazio instrumental” bidez amortizatutako kredituak aukera librekotzat jotzen dira.
2. Aurrekoaren salbuespen gisa, honako bi kasu hauetan amortizazioa hautazko kredituen bitartez egingo da:
   a) “kolaborazio instrumentala” Jazz espezialitatearen irakasgaietan;
   b) “kolaborazio instrumentala” Ganbera Musikako taldeetan. Talde berean gehienez 45 orduko iraupena izan dezake ikasturte batean.

*Artículo 6. Tipo de créditos amortizados mediante la “colaboración instrumental”.*

1. Con carácter general los créditos amortizados mediante “colaboración instrumental” se consideran de libre elección.
2. Como excepción a lo anterior se consideran los dos casos en los cuales la amortización se hará de créditos optativos:
   a) “colaboración instrumental” en asignaturas de Jazz;
   b) “colaboración instrumental” en grupos de Música de Cámara con una duración en un mismo grupo igual o superior a 45 horas en un mismo año académico.

*7. artikulua. "Kolaborazio instrumentala" Karrera Amaierako Azterketetan*

1. Karrera Amaierako Azterketetarako ikasle kolaboratzaileen zerrenda Idazkaritza Pedagogikoan entregatuko da kontzertu-programekin batera, ezarriko diren epeetan.
2. Informazio horretatik abiatuta, txosten bat landuko da. Epaimahaiaren esku utziko da txosten hori, eta azterketaren Aktarekin batera beteko da.
3. Azkenean, idazkari akademikoak kolaborazio-txostena osatuko du, eta, hortik aurrera, 5. artikuluan azaldutako prozedurari jarraituko zaio.
4. Emandako kredituak espedienteetan bilduko dira, "Karrera Amaierako Azterketarako Kolaborazioa" izendapen orokorrarekin, eta kolaborazioa gauzatu den espezialitatea ere adieraziko da, parentesi artean.

*Artículo 7. "Colaboración instrumental" en Exámenes de Fin de Carrera*

1. La relación de alumnos colaboradores en los Exámenes de Fin de Carrera tendrá que ser entregada en Secretaría Pedagógica junto con los programas de concierto en los plazos en que se establezcan.
2. A partir de esta información, se elaborará un informe que se entregará al Tribunal y se cumplimentará junto con el Acta del examen.
3. El informe de colaboración irá finalmente completado por el Secretario Académico y a partir de este paso se seguirá el procedimiento explicado en el Artículo 5.
4. La inclusión en los expedientes de la concesión de créditos quedará reflejada con la denominación genérica de "Colaboración en Examen de Fin de Carrera" indicando entre paréntesis la especialidad en la que se ha realizado la colaboración.

*Xedapen indargabetzailea*

Urriaren 20ko 13/2006 Ebazpena indargabetu da.

*Disposición derogatoria*

Queda derogada la Resolución 13/2006, de 20 de octubre.

José Mª Bretos Linaza
IKASKETA BURUA/JEFE DE ESTUDIOS